

“AMURRIO HIRIBILDUA” XXXV. ARTE-LEHIAKETA 2021

1. PARTE HARTZEA

Nahi duten artista guztiek har dezakete parte, baldin eta baldintza hauek onartzen badituzte.

2. BALDINTZA TEKNIKOAK

Libreak dira bai teknika, bai gaia eta joera artistikoa.

Artista bakoitzak bi artelan berri, lehiaketan saririk jaso ez dutenak, sinatu gabe eta hirugarrenek eska ditzaketen eskubideetatik libre aurkeztu ahal izango ditu.

Dimentsio biko artelanak ezin izango dira 150 X 150 zm-koak baino handiagoak izan (markorik gabeko neurriak). Artelanak, markoarekin (gehienez ere 3 zm-ko listoi batez) edo markorik gabe aurkez daitezke. Hala nahi izanez gero, artelanak metakrilatoz babestuta egon daitezke. Kristalez babesturikoak, ordea, ez dira onartuko.

Hiru dimentsioko artelanak ez dira 100 zm-koak baino handiagoak izango, edozein dimentsiotan.

Artelanak muntaketa berezia behar izanez gero, egoki instalatzeko artista berak egingo luke, lana entregatzen duen egunean.

Artista bakoitzaren ardura da artelanaren garraioa, bai ekartzean, bai jasotzean. Amurrioko Udalak ez ditu bere gain hartuko garraioan artelanek izan ditzaketen kalteak. Behar bezala bildua igortzen bada, modu berean itzuliko da.

Baztertu egingo dira egoera onean ez dauden artelanak edota erabiliko materialaren ahultasunagatik erraz honda daitezkeenak.

3. SARIAK

Parte hartzaile guztiek izango dute honako sari orokorretakoren bat jasotzeko eskubidea:

- Lehenengo Sari Orokorra: 4.000 euro eta oroitzapenezko eskultura.
- Bigarren Sari Orokorra: 1.500 euro eta oroitzapenezko eskultura. .

Halaber, tokiko artistek honako sari hau ere eskura dezakete:

- Tokiko Saria: 1.000 euro eta oroitzapenezko eskultura.

Tokiko artistatzat hartuko dira Amurrion erroldaturikoak aurkeztutako obra ekartzerakoan.

Lehiakide bakoitzak gehienez sari bana jasotzeko aukera izango du.

Legeak dioenez sariak dagokien atxikipena daramate.

Hauetariko sariren bat jasotzen duen artelana Amurrioko Udalaren esku geratuko da.

Sari banaketa 2021eko irailaren 30ean egingo da, 19:00etan, “La Casona” udal erakusketa aretoan, erakusketaren inaugurazioa dela eta.

4. ERAKUSKETA

Aukeratutako artelan guztiekin erakusketa bat egingo da “La Casona” udal erakusketaretoan, 2021eko irailaren 30etatik urriaren 28ra bitartean. Hori dela eta, aukeraturiko artelanen katalogo bat argitaratzen bada, eta horretarako bakarrik, parte hartzaile guztiek Amurrioko Udalari euren artelanak erreproduzitzeko baimena emango diote. Ezin izango da erakusketako artelanik jaso, erakusketa amaitu eta biharamuna bitartean.

5. EPAIMAHAIIA

Artelanak aukeratzeaz eta sariak emateaz arduratuko den epaimahaia arte, kultura edo/eta kritika munduko pertsona adituek osatuko dute. Honako hauek dira epaimahaiaren betebeharrak:

- Deialdi honetako baldintzak betetzen ez dituzten artelanak baztertzea.
- Aurkezturiko artelanen artean jendaurrean jartzeko egokienak aukeratzea.
- Deialdi honetako sariak nori eman erabakitzea.

Epaimahaiak, hala baderitzo, edozein sari eman gabe uztea erabaki dezake. Erabakiak aldaezinak izango dira. Epaimahaia nork osatzen duen, epaia ematen den egun berean jakinaraziko da.

6. ARTELANAK EKARTZEA

Artelanak "La Casona" erakustaretora (Aldai 1, 01470 Amurrio – Araba) ekarri beharko dira 2021eko irailaren 1etatik 16ra bitartean, astelehenetan izan ezik, 10:00etatik 14:00era. Garraibidieren batez igorritako artelanak egoki bilduak egongo dira, irekitzean eta ixtean artelanak kalterik izan ez dezan. Artelanen igortze gastuak, bai ekartzean bai itzultzean, parte hartzailearen kontura izango dira eta inola ere ez antolatzaileen kontura.

Artelan bakoitzak honako hauek itsatsirik izango ditu:

- Oinarri hauekin batera doan izen emate orriaren bi ale (edo fotokopia) behar den bezala beterik eta sinaturik.
- Artistaren portfolio labur bat.
- Diskurtso laburra edo obraren deskribapena (aukerakoa).

Amurrioko Udala ahalik eta kontu handiena jarriko du artelanak zaintzen, behin hauek jasota, bere esku dauden bitartean eta egileak jasotzen dituen bitartean. Ardura horrek ez du artelanak itzultzeko gehienezko epea gaindituko. Baina, hala ere ustekabeen artelanak kalterik izanez gero, ez du kalte horien ardurarik izango.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa eta 2/2004 Euskal Legea betez, lortutako datu pertsonalak Amurrioko Udalaren datuen fitxategietan tratatuko dira, "Amurrio Hiria" lehiaketa Artistikoaren kudeaketaren berezko zereginak egiteko, bai eta horren inguruko jardueren, hitzorduen eta dokumentazioaren berri emateko ere.

7. ARTELANAK ITZULTZEA

Artelanak 2021eko azaroaren 1etatik 25era bitartean jaso beharko dira, ekarri ziren leku eta ordu berebetean eta artelana ekartzean jasotako agiria erakutsi beharko da. Artelanak fakturatuta iristen badira, garraio agentziaren bidez itzuliko dira, gastuak hartzailearen kontura direla. Egileek jaso beharreko artelanak ezarritako epean jasotzen ez badira, Amurrioko Udalaren udal ondasun jabetzarako geratuko dira.

8. OINARRIEN INTERPRETAZIOA

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriak erabat eta baldintzarik gabe onartzea dakar, baita epaimahaiaren erabakia eta legezko erreklamazioei uko egitea ere. Epaimahaiari dagokio oinarriak interpretatzea.

Oinarri hauetan aurreikusi gabekorik gertatuz gero, epaimahaiak izango du horiek konpontzeko eskumena eta aginpidea.

IZEN-EMATE ORRIA

Amurrioko Udalarentzako alea

ZK.

Izen-abizenak: _____
Helbidea: _____
Herria: _____ P.K.: _____
Probintzia: _____
Telefono-zenbakia: _____
IFZ: _____
E-maila: _____

Obraren titulua: _____
Teknika eta euskarria: _____
Neurriak: _____
Egite data: _____

Obra itzultzea:

- Neuk jasoko dut, behin obra aurkeztu izanaren agiria erakutsita.
 Garraio agentzia berberak itzuliko du goian aipaturiko helbidera.

Garraio agentzia: _____

Amurrioko Udalari, katalogo eta iragartze xederako, nire artelanaren erreprodukzioa egiteko baimena luzatzen diot Amurrioko Udalari

Sinadura

Obra jasotzean erakutsi beharko den obra aurkeztu izanaren agiria.

ZK.

Izen-abizenak: _____
IFZ: _____
Informaziorako telefono zenbakia: _____

Obraren titulua: _____
Teknika eta euskarria: _____
Neurriak: _____
Egite data: _____

Sinadura